

**2025eko MAIATZAREN 26AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA** **16 zk.**

Udaletxeko batzar-aretoan, 2025eko maiatzaren 26an, arratsaldeko ordu batean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko.

Batzarkide hauek bertaratu dira:

Batzarburua	XABIER TXURRUKA FERNANDEZ JN.
Batzarkideak	GARBIÑE OIARBIDE IRURETAGOIENA (EAJ/PNV) JESUS ARANA GOMEZ (EAJ/PNV) IRUNE URBIETA ALBERDI (EAJ/PNV) GERVASIO GABIRONDO FERNANDEZ (EAJ/PNV) INAXIO ILLARRAMENDI LIZARRETA (PSE-EE)
Idazkaria	AMAIA GORROTXATEGI ZUBIZARRETA AND.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaia aztertu eta eztabaidatu ditu Tokiko Gobernu Batzarrak.

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA

2025eko maiatzaren 19ko bilkuraren akta aho batez onartu dute, zuzenketarik egin gabe.

2.- URKOMEREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA UDAL MERKATUA DINAMIZATZEKO.

Espedientea: 2025H9890001

Zarauzko Udal Merkatua baliabide garrantzitsua da lehen sektoreko komertzializazioa sustatzeko, sektore hori plazaratzeko eta herritarrekin harremanak sartzeko. Ildo horretan, Udala ahaleginetan ari da baliabide hori mantentzeko eta biziberritzeko.

Aldi berean, URKOME elkarteak ere helburu horiek konpartitzen ditu.

Hori horrela, Urkome Elkartek eta Zarauzko Udalak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzea aurreikusi dute, udal merkatua dinamizatzeko.

Hitzartutako ekimena garatzeko, Zarauzko Udalak 13.287,28 € ordainduko dizkio URKOMERI partida honetatik: 1 1101.226.11.414.00 2025 nekazaritzaren sustapena.

Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak txostena egin eta hala proposatuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehen.- Onartzea URKOME Landa Garapeneko Elkartearen eta Zarauzko Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena udal merkatua dinamizatzeko proiektua garatzeko.

Bigarrena.- Alkateak edukiko du hitzarmena sinatzeko eta hitzarmenean bertan aurreikusitako Jarraipen Batzordean Udalak izango dituen ordezkariak izendatzeko eskumena.

ZARAUZKO UDALAREN ETA URKOMEREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA
MERKATU PLAZA DINAMIZATZEKO

Zarautzen, 2025eko apirilaren XXan

BILDU DIRA

Alde batetik, YURRE PEÑAGARICANO ZUBELDIA andrea, URKOME Landa Garapen Elkartearen ahaldun berezia, elkarte horren izenean (IFKa: G-20155560).

Bestetik, XABIER TXURRUKA FERNANDEZ jauna, Zarauzko Udaleko alkatea, udal horren izenean (IFKa: P2008500G).

Bi aldeek hitzarmen hau formalizatzeko behar besteko lege-gaitasuna eta ordezkaritza aitortzen diote elkarri, eta horri jarraikiz honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

7/2022 LEGEAK, ekainaren 30ekoak, Landa-Ingurunearen Garapenarenak, honela jasotzen du:

- **6. artikulua.**- *Landa-inguruneko politika instituzionalen helburu sektorialak.*
- **3. B- I-** *Merkataritza-sustapena egitea sektorearen produktibitatea nahiz ekoizpen-kostuak optimizatzeko, arreta berezia eskainita garapen endogenoko jarduketei eta merkaturik hurbilenetan egin beharreko sustapenari Lehen sektoreko produktuak azken kontsumitzaileari zuzenean saltzea sustatzea, banaketa- eta merkaturatze-kanalak sustatuz.*
- **18. artikulua.**- *Landa-garapenaren arloko jarduketan finantzaketa instituzionala*
- **6.-** *Landa-garapenaren arloan eskumena duten euskal erakunde publikoek finantza-tresna propioak bermatuko dituzte, lege honetan jasotako plangintza-tresnak garatzeko beharrezkoak*

diren egiturak mantentzetik haratago, landa-garapeneko eskualdeetako programetan jasotako proiektu zehatzak garatzeko helburuarekin.

Eta, aldi berean, UROLA KOSTA ESKUALDEKO LANDA GARAPEN PROGRAMAK helburu eta lan ildo hauek ditu:

Helburua: Nekazaritza jarduera sustatu: Nekazaritza jarduera mantendu, berrikuntza eta elkarlana sustatuz, bertako produktuen komertzializazioa hobetuz eta lurraren eskuragarritasuna bermatuz, zehazki, bertako produktuen sentsibilizazioa areagotu eta komertzializazio bideak hobetu.

Lan ildoak: Komertzializazioa indartzea bide berriak sustatuz eta tokiko merkatuak bultzatu eta dinamizatuz.

Arau eta irizpide horiek dira hitzarmen honen testuingurua, eta honela garatzen dira:

URKOME Urola Kostako landa-eremuen garapenaren alde lan egiten duen elkarte da. Eskualdeko 11 udaletzek eta nekazaritza-elkarateek osatutako irabazi asmorik gabeko erakundea da.

URKOMEK Landa-ingurunearen Garapen Legea du ardatz eta gidari. Elkaratearen ildo nagusietako bat da bertako nekazaritza-produktuak sustatzea eta horien komertzializazioa hobetzea eta suspertzea, bereziki, zuzeneko eta gertuko salerosketa, jakitun baita lehen sektorea indartzeko ardatz nagusia dela komertzializazio hori.

Aldi berean, ZARAUZKO UDALAK, lehen sektorea biziberritu eta indartu nahi du, eta badaki horretarako ezinbestekoa dela nekazaritza-produktuen komertzializazioa suspertzea. Gainera, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak adierazten du "azokak eta merkatuak" udal eskumeneko zereginak direla.

Beraz, bi erakundeek helburu berberak dituzte, hain zuzen ere, lehen sektorea sustatzea eta horretarako, besteak beste, merkatua indartzea.

Urkome Elkarateak ikuspegi orokorragoa du eta ezagutza sakona bailarako eta erkidegoko azoka guztien inguruan, izan ere, Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko hainbat erakunderekin lanean aritzen da.

Aldi berean, Zarauzko Udalak herriko merkatua zuzenean ezagutzen du, egunerokotasunean, eta berak bideratzen du bai kudeaketa bai postuetako adjudikazioak.

Horregatik, bi aldeek hitzarmena sinatzea adostu dute ahaleginak bateratzeko eta helburuak lortzeko bidean eraginkorra izateko.

Lehena.- Xedea

Hitzarmen honen xedea da Zarauzko Udalaren eta URKOMEn artean lankidetzeta eta koordinazio esparrua arautuko duten baldintza bereziak ezartzea, Zarauzko merkatu plaza dinamizatzeko eta sustatzeko.

Bigarrena.- Zarauzko merkatuaren baldintzak

Zarauzko merkatuaren baldintzak ZARAUZKO UDAL MERKATUA ARAUTZEKO ORDENANTZAN jasotakoak izango dira.

Hirugarrena.- Aldeen betebeharrak

Hitzarmen honen helburua betetzeko, alderdi sinatzaileek honako jarduera hauek egingo dituzte, betiere Zarauzko Udalaren eskumenekoak diren jarduerak alde batera utzi gabe:

1. **URKOMEK** konpromisoa hartu du lankidetzan jarduteko eta laguntza emateko, jarraian zehazten den moduan:
 - a) Merkatu plazako jarduera ekonomikoa indartzeko ekimenak sustatzea, eskualdeko, Gipuzkoako eta Euskadiko estrategiarekin bat eginik.
 - Ekoizleari begira, ekintzak bultzatzea merkatu plazako baserritarrengan zuzeneko inpaktu ekonomikoa duen eskaintza handitzeko.
 - Erosleari begira, eskaria aktibatuko duten neurriak eta ekintzak garatzea, besteak beste:
 - Ekoizleekin aukerak aztertzea ordutegiak arratsaldera zabaltzeko, eta Udalari proposamen zehatza egitea.
 - Postuak erakargarriagoak egiteko ekintzak aztertzea (gai honen inguruan dauden ikerketetatik abiatuta) eta postukideentzako prestakuntza antolatzea (nork, noiz eta nola emango lukeen prestakuntza hori).
 - Lehen sektoreko produktuei daukaten balorea ematea, eta besteak beste:
 - “Bertatik bertara eta garaian garaikoa” kanpainaren jarraipena egitea, Udalarekin batera (argazkiak eta bideoak balidatu, elkarrizketarako pertsonak aurkitu eta harremanetan jarri, hedabideetarako materiala prestatu). Kanpaina hori sareetan zabaltzea, partekatzea eta zabalkuntza horren jarraipena eta balorazioa txosten batean jasotzea, hobekuntzarako ekarpenekin.
 - Promozio-estrategia bat definitzea eta, besteak beste, dokumentu bat sortzea estrategia hori jasoko duena, horrela, Udalari baliagarri izan dakion, ekintzak gauzatzeko.
 - b) “Zarauzko Merkatu Plaza Bizirik” elkarteak Udalarekin elkarlanean martxan jartzen dituen ekimenak bultzatzen laguntzea, eta bidelagun izatea.
 - Ekitaldien plangintzan laguntzea. Elkarteko kideekin bildu eta beste leku batzuetan egiten diren ekintzen berri ematea, denon artean, urtean zehar egiteko proposamenak zehazteko.
 - Dirulaguntzen tramiteetan laguntzea.
 - Ekitaldien antolaketan laguntzea. Ekoizleekin elkartu eta ekitaldien ezaugarriak eta beharrak definitzea, ondoren, ekitaldia burutzeko Udalari egin behar zaion baimen eskaria betetzeko.
 - c) Prestakuntza sustatzea (beharrak aztertu, prestakuntza-saioak antolatu...)
 - Merkatuko baserritar eta ekoizleen artean prestakuntza-saioak antolatzea. Postukideekin zuzenean hitz egin ondoren eta Merkatuko elkartearekin kontrastatu ondoren, prestakuntza-saioak identifikatzea eta proposamen zehatza egitea Udalari.
 - HAZIrekin, ELIKArekin eta beste hainbat erakunderekin bitartekari-lanak egitea, Zarautzen identifikatutako prestakuntza-behar horiei erantzuna emateko, eta saioak gauzatzeko bitartekoak zehaztu eta Udalean dagozkion baimenak eskatzeko.



- d) Merkatuko gobernantza egokia zehazten laguntzea (Merkatuko Udal Ordenantza berrikusten laguntzea)
- Ordenantza eguneratzeko proposamenak egitea.
 - Ekoizle baserriarren "Fitxak" eguneratzea. Gutxienez, urtean behin, ekoizle bakoitzaren fitxak eguneratzea (ustia ketaren datuak, erregistroak, ezaugarriak, titularrak eta abar jasotzen ditu fitxak). Horretarako, ekoizleei galdetuko zaie ea aldaketarik jasan duten urte horretan, eta ekoizle berriren bat baldin badago fitxa berria sortuko da.
 - Merkatu plazako gunearen azterketa eta hobekuntzen proposamena egitea. Merkatuan egindako ikuskapenetan jasotakoa eta postukideek esandakoak kontuan izanda, merkatua hobetzeko balioko duten proposamenak egitea eta Udalari jakinaraztea.
- e) Merkatuko intzidentzia eta beharrak bideratzen laguntzea. Horretarako, intzidentzien berri emango dio Udalari, jakin bezain laster edo bi astean behin egiten den bileran, premiaren arabera.
- f) Merkatu plaza beste arlo batzuetan murgiltzea:
- Elkarlanerako zubiak sortzea Merkataritza, Ostalaritza eta Turismo eragileekin.
 - Beste herri batzuetako azoken berri ematea.
 - Ikastetxeekin elkarlana egitea eta, besteak beste, "Goazen merkatura" proiektua bideratzea, eskola-umeak merkatura ekarri eta ezagutu dezaten. Horretako, Udalarekin batera, proiektuaren ezaugarriak zehaztea, eta Udalak kontratua egin ondoren, lanen jarraipena egitea, lan guztiak amaitu arte, bai eskolen bai enpresaren balorazioa bildu arte.
2. **Zarauzko Udalak** konpromisoa hartu du bere lankidetzan eta laguntza emateko, jarraian zehazten den moduan:
- a) Udal merkatua baldintza egokietan mantentzea.
- b) Espazio publikoa lagatzea, udal-araudiak arautzen dituen baldintzetan.
- c) Udal zinegotzia eta teknikaria izendatzea, merkatuko gaia landu, bideratu eta bitartekaritza-lanak egiteko.
- d) Udal estrategia lantzea, Urkomerekin batera, udal merkatuaren kudeaketaren oinarri izan dadin.
- e) Merkatuko salmenta udal-araudiak arautzen dituen osasun-baldintzetan egiten dela kontrolatzea.
- f) Udal barruko koordinazioa bideratzea, sortzen diren gaiei aurre egiteko, bereziki, Herrilan, Brigada, Ondare eta Ingurumen departamentuen artean.
- g) Arlo desberdinetako espedienteak tramitatzea: postuen adjudikazioak, dirulaguntzak, berrikuntzak eta obrak, zerbitzuen adjudikazioak eta abar.
- h) Beste departamentu batzuekin ere koordinatzea (bereziki, Euskara, Berdintasuna, Hezkuntza eta Turismo departamentuekin), hainbat udal irizpide txertatzeko merkatuko esparruan.
- i) Zarauzko merkatua dinamizatzeke laguntza ekonomikoa eskaintzea, hitzarmen honen bosgarren klausulan ezarri bezala.

Laugarrena: Berdintasunaren eta euskararen erabileraren arloan bi aldeek bete beharreko betebeharrak

1. Hizkuntzaren erabilerari buruzkoak:

Merkatua Zarauzko herriaren nortasun-ikurretako bat da, zalantzarik gabe, euskara den bezala. Udal Merkatua bertako produktuen salmentarako gunea izateaz gain, lan egiteko modu baten, bizimodu baten erakusle ere bada. Eta kultura horren ezaugarri edo bereizgarri garrantzitsua da bertako baserriar eta ekoizleen hizkuntza nagusia ere: euskara.

Horrela bada, hitzarmen honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarritakoa eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatutakoa. Horien artean dago ZARAUZKO UDALLEAN ETA UDALERRIAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO ARAUDIA EMATEN DUEN UDAL ORDENANTZA:

Horrenbestez, euskararen erabilerari arreta berezia eskainiko zaio Zarauzko merkatu plaza dinamizatzeko eta sustatzeko helburuarekin Zarauzko Udalaren eta URKOMEn artean sortutako hitzarmen honetan.

Zarauzko udal merkatuko berezko hizkuntza euskara izango da, euskaraz lan egingo da eta euskaraz eskainiko da zerbitzua.

- Bi erakundeen arteko harremana euskaraz izango da. Hitzarmen honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz izango dira.
- Urkomek merkatu plazako jarduera ekonomikoa indartzeko sustatuko dituen jarduera guztietan bermatu eta sustatuko da euskararen erabilera.
 - Ekoizleei begirako jarduerak euskaraz izango dira.
 - Erosleei begirakoak ere euskaraz izango dira, eta beste hizkuntzaren bat erabili behar bada euskarari lehentasuna emango zaio.
 - Lehen sektoreko produktuak baloratzeko estrategiak eta promozio estrategiak, orohar, euskaraz izango dira. Beste hizkuntzaren bat erabili behar bada euskarari lehentasuna emango zaio.
 - Sare sozialetan ere hizkuntzaren erabilera zainduko da, euskarazko mezuak zabalduz, eta beste hizkuntzaren bat erabili behar bada euskarazko mezuak lehenetsiko dira.
- Haur, nerabe eta gazteentzat bereziki antolatutako jarduera guztiak euskaraz izango dira.
- "Zarauzko Merkatu Plaza Bizirik" elkartearekin izango duen harremana euskaraz izango da.
- Ekoizleentzako prestakuntza-saioak euskaraz izango dira.
- Merkatuko ordenantza eguneratzeko irizpideetan aintzat hartuko da hizkuntzaren tratamendua ere.

2. Berdintasun alorreko betebeharrak:

- Uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoan jarritakoaren arabera, sexu-delituengatik zigor administratibo, laboral edo penalik jaso ez duen pertsona fisiko nahiz juridikoa izatea.
- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duenak ezarritako betekizunak betetzea.
- Helburuetan, sarbide-sisteman, funtzionamenduan, ibilbidean, jardueran, antolaketan edo estatutuetan emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa betetzen duen eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko

- diskriminaziorik egiten ez duen pertsona fisiko nahiz juridikoa izatea (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).
- Berdintasunerako eskubidea eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik zigor administratibo, laboral edo penalik jaso ez duen pertsona fisiko nahiz juridikoa izatea (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).
 - Dokumentazio, idazki, publizitate, irudi eta material guztietan komunikazioa modu ez-sexistan eta barneratzailean erabiltzea. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestea; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatzea.

Bosgarrena: Finantzaketa.

Hitzarmen honetako hirugarren klausularen 2.i) letran ezarritakoaren arabera, Zarauzko Udalak 13.287,28 euroko ekarpena egingo du 2025 urtean. Urteko ekarpen hori aurreko ekitaldiko memoria aurkeztu eta Udalaren oniritzia jaso ondoren egingo da.

2025. urteko ekarpena aurrekontu-partida honen kontura egingo da: 1101.226.11.414.00 2025 (9855) NEKAZARITZAREN SUSTAPENA. Zarauzko Udalak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen indarraldiko hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jartzeko.

Seigarrena.- Betebeharrak ez betetzea

Aldeetako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste aldeak bi aukera izango ditu: edo zehatz-mehatz bete dadila eskatzeko, horretarako, Jarraipen Batzordeak adostutako epea emanda; edo hitzarmena balio gabetu dadila eskatzeko.

Hitzarmena indargabetzen bada, zazpigarren klausulan araututako Jarraipen Batzordeak adostuko ditu indarrean dauden ekintzak bukatzeko eta kalte-galerak ordaintzeko baldintzak.

Urkome izan bada betebeharrak bete ez dituen, bosgarren klausulan ezarritako finantza-konpromisoaren zati proportzionala itzuli beharko du, hau da, suntsiarazitako hilekoei dagokien zenbatekoa.

Zazpigarrena.- Jarraipen batzordea

Jarraipen batzorde bat eratuko da bi alderdien arteko koordinaziorako. Batzorde hori hitzarmena sinatu duten bi alderdietako ordezkariak osatuko dute.

Batzordea arduratuko da hitzarmenean aurreikusitako jarduerak aztertzeaz eta garatzeaz, baita ordaindutako gastuen jarraipena egiteaz ere, ezarritako helburuak betetzen direla bermatzeko. Horretarako, Jarraipen Batzordeak hitzarmena aplikatzeko irizpideak ezarriko ditu, eta interpretazioan eta betearazpenean sortzen diren arazoak ebaziko ditu.

Jarraipen batzordea hilean behin bilduko da, presentzialki edo telematikoki. Horrez gain, hartutako konpromisoek eskatzen duten adina bilera egingo dira Udala, Urkome eta merkatuko erabiltzaileekin.

Urte natural bakoitzaren urtarrilean Urkomek aurreko urte naturalean egindako ekimenei buruzko memoria aurkeztu beharko dio Zarauzko Udalari. Memoria horretan, egindako bilerak eta ekintzak dokumentatuko dira, eta aktak eta sortutako materialak erantsiko zaizkio.

Aldi berean, burututako jardueren balorazioa jasoko du memoria horrek, ezarritako helburuen betetze-maila ezagutzeko.

Zortzigarrena.- Hitzarmena aldatzea

Sinatzaileen aho bateko onespena beharko da hitzarmenaren edukia aldatzeko.

Bederatzigarrena.- Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmena sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2025eko abenduaren 31 arte luzatuko da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hitzarmena bukatzeko aurreikusitako epea amaitu baino lehen sinatzaileek bi aukera izango dituzte: hitzarmena luzatzea (urtez urte, gehienez lau urte) edo iraungitzea.

Hitzarmena luzatzea erabakitzen bada, bi aldeek adostuko dute Udalak eskainiko duen ekarpen ekonomikoa, hirugarren klausularen 2.i) letran ezarritakoaren arabera.

Hamargarrena.- Hitzarmena suntsiaraztea

Hauek izango dira hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea, luzatzea erabaki gabe.
- b) Aldeek aho batez hala erabakitzea.
- c) Aldeetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea, hitzarmen honen seigarren klausulan aurreikusitako moduan.
- d) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaritzen duen erabaki judiziala ematea.
- e) Beste edozein arrazoi, baldin hitzarmenean edo beste edozein legetan aurreikusita badago.

Eta agiri honetan jasotakoarekin ados daudela adierazteko, bi aldeek dokumentu honen bi ale sinatzen dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean. Alde bakoitzak ale bat jasoko du.

3.- ESKARI GALDERAK

Ez du inork hitz egin gai-zerrendako puntu honetan.

Aztertzeko besterik ezean, bilkurari amaiera eman diote, arratsaldeko ordu bata eta bost direnean eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.

